Augustin Zubikarai

XIII. ipuin rallya

DBH 1-2

2024-25 ikasturtea

ONDARROA

Bilduma ederra oparitu digute, bai horixe!
Sartu barrura, beldurrik gabe.
Ezetz jakin zer topako duzun!
Altxor bat aurkituko duzu orriotan,
herriko sortzaile gazteek eurek
gure esku ipini duten altxor galanta.

Aukera ederra da hau gure gazteak hobeto ezagutzeko:
abenturazaleak dira, maitasunak kezkatuta daude,
beldurrari nola aurre egin asmatu nahian ari dira,
euren burua ezagutu nahian barne borrokak
bizi dituzte eta herria maite dute.

Eskerrik asko rallyan parte hartu duzuen guztioi,
eta zorionak irabazleoi.
Jarraitu euskaraz sortzen.

URTZA ALKORTA ARRIZABALAGA
ONDARROAKO ALKATEA

IRINA ALKORTA BEDIALAUNETA
ONDARROAKO ALKATEORDEA

DBH 1-2

AURKIBIDEA

4 **ERRUDUN ALA ERRUGABE?**
GORKA MARTINEZ DE AZAGRA MARTINEZ DE LUKO

7 **IZAR IHESKORRAK**
ARANE GONZALEZ ATXURRA

12 **NOR NAIZ?**
GARAZI PÉREZ AKARREGI

16 **GAUAREN MEHATXUAK**
ENEKO ANDREU PERNAS

20 **ATE MALTZURRA**
ILAZKI ANDONEGI RODRIGUEZ

Augustin Zubikarai XIII. ipuin rallya

2024-2025 ikasturtea

Epaimahaikideak:
Leire Bilbao Barruetabeña
Ana Urkiza Ibaibarriaga

Antolatzailea:
ONDARROAKO UDALA

Babeslea:
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

GORKA MARTINEZ DE AZAGRA MARTINEZ DE LUKO • Marrazkia, berarena.

Errudun ala errugabe?

Bazen behin, New York-eko kaleetan, Héctor Ayala izeneko pertsona bat. Héctor pertsona argala zen, baina besoetan nahiko indarra zuen. Ile marroia eta laburra zuen eta begiak kolore berdinekoak zituen. Oso pertsona lagunkoia zen eta bere familia asko maite zuen.

Gau hartan, bere etxerantz zihoan lore sorta batekin bere emazteari sorpresa bat emateko. Metroaren albotik pasatzen ari zenean garrasi batzuk entzun zituen eta jaistea erabaki zuen. Metroan sartu zenean ezin zuen sinetsi ikusten ari zena… bi gizon beste bat jipoitzen ari ziren! Héctor laguntzera joan zen ziztu bizian. Bi gizonekin borrokan hasi zen eta jipoitutako pertsonak, Donny izena zuenak, alde egin zuen. Borrokaren erdian gizon misteriotsu horietako bat trenbidera jausi zen eta justu trena pasatu zen. Beste gizonak orduan zera esan zuen:

–Eskuak gora, polizia!

Héctorren zoritxarrerako polizia ustela zuen aurrean.

Urte bat pasatu zen epaiketa heldu zenera arte. Honetarako, Héctorrek abokatu ona lortu zuen, Jhon Marston. Jhonek bere kontakizuna entzun zuenean argi zuen Héctor errugabea zela eta beraz, doan eman zizkion bere zerbitzuak.

Jhonek Donnyrekin hitz egin zuen, baina ezer ez zuen lortu. Dena dela, berriro ere topo egin eta orduan jakin ahal izan zuen ez zuela nahita egin. Jhonek hau egin zuen egiaztatzeko Héctor errugabea zela.

Epaiketa eguna heldu zen. Jende guztia jarri zen eta epaileak hasiera eman zion sesioari. Lehendabizi, Donnyk, lekuko bakarrak, zer gertatu zen kontatu zuen. Gero, polizia ustelak istorioa guztiz aldatu zuen eta Héctor zuzenean haiek hiltzera joan zela esan zuen. Azkenik, Héctorrek hitz egin zuen. Jhon-ek eta fiskalak galderak egin zizkioten Héctorri eta epaileak, gizon haren noblezia egiaztatu ondoren, bere erabakia hartu zuen. Eta horrela jakinarazi zien:

–Nire ikuspegiaren arabera, Héctor Ayala… errugabea da.

Héctor eta bere familia pozez zoraturik zeuden eta negarrez hasi ziren. Hortik egun batzuetara mundu guztiak bere bizitza jarraitu zuen. New York-eko hiriak beti gogoratuko du epaiketa hau.

ARANE GONZALEZ ATXURRA • Marrazkia, berarena.

Izar iheskorrak

Basoz eta lakuz betetako planeta batean bizi ziren. Mendi baten tontorrean etxe txiki bat zegoen, egurrez eta naturako beste hainbat materialez egina. Beste edozeinek etxetxo hori txabolatzat hartuko zukeen, baina ama-alaba horien etxea zen. Planeta hartan, hainbat bizidun zeuden, hala ere, lur haren buru Litus izeneko piztiak ziren: larruazal berdez estalita zuten gorputza baina gizakiaren egitura berbera zuten gorputz forma aldetik. Espezie hark berezitasun garrantzitsu bat zuen: beraientzako ezinbestekoak ziren besapetik gerriraino heltzen zitzaizkien mintzak freoak deitzen ziren. Ez ziren gai hegan egiteko: hala eta guztiz ere, altura handitik salto eginez, airean mugitzeko erraztasuna zuten.

— Laster zure eguna da. Pentsatu al duzu zer eskatuko duzun? — galdetu zion amak Kessa izeneko alabari.

Etxean zeuden afaria prestatzen, Kessaren urtebetetzea zetorren eta gainerako familiarekin bazkaria egiteko asmoa zuten. Egia esan, ez ziren gainerako familiarekin ondo konpontzen, izan ere, ama-alabak

desberdin pentsatzen zuten. Bazen Litusek zuten tradizio nazkagarri bat. Beraiek horren kontra zeuden: 14 urte betetzean emeei beraiek haibeste maite zuten mintza kentzen zieten. Hori zen bertako tradizio nagusia.

— Badakizu ez dudala ezer nahi. Nire desio bakarra freoak ez moztea da, — erantzun zion amorru biziz Kessak.

Amak bazekien bere alabak biziki maite zituela bere freoak. Egunero pasatzen zituen orduak eta orduak mendira igo eta airera salto egiten. Kessak bazekien bere osaba harroputzek moztu zizkiotela freoak bere amari, 14 urte bete zituenean.

— Ahal dudan guztia egingo dut arrek zure freoak ez mozteko. Espero dut nire anaiek beraien alabez arduratu eta zu bakean uztea.

Kessaren eguna heldu zen eta bazkaria izan zuten. Ez zen munduko bazkari hoberena izan, baina, behintzat, bere lehengusu-lehengusinekin ibili zen. Etxera bueltatu ziren ama-alabak eta biek segituan hartu zuten lo.

Leihoa irekitzen ari zela sentitu zuen Kessak izaretan bueltaka zebilela. Bat-batean, esku sendo batek oinetik heldu eta ahoa tapatu zion. Beldurtu egin zen bere osabari begietara begiratu zionean.



— Isiltzen ez bazara, freoak moztu eta menditik botako zaitut.

Amorruaren amorruz, Kessak kosk egin zion eskuan eta osabak eskua kendu zuen. Momentu hori erabili zuen oihukatzeko.

— Ama!!!

Osabak berriz ere eskua ahoan jarri zion eta atetik bere ama sartzen ikusi zuen.

— Ez ukitu nire alaba! — oihukatu zuen, baina beste esku batek lurrera bota zuen.

Bi arrek ama-alabak lurrera bota zituzten, biak lepotik helduta. Amaren anaia batek labana hartu zuen eta eme gaztearen freoetan kokatu zuen.

— Entzun ondo. Urteak joan ahala eme guztiek moztu dituzte freoak, eta zu ez zara salbuespena izango.

Beldurraren beldurrez, Kessa ez zen mugitu ere egin. Eskuan laztan goxo bat sentitu zuen eta amaren eskua zela konturatu zen. Amak xuxurlatu zion:

— Jarraitu hari zuriari.

Kessak ez zuen ulertu, baina bat-batean dena ilun bihurtu zen. Bera bakarrik zegoen: ez zegoen bere ama edo bi osaben arrastorik. Hari zuri bat ikusi zuen eta bere amaren hitzak gogoratuz hariari kolpe egin eta aurrera joan zen. Pausoak eman ahala argi bat ikusi zuen iluntasunaren erdian: «planeta» zuri bat aurkitu zuen Kessak.

Denbora pasatu zen Kessa Ilargian bizitzen hasi zenetik. Bere itxura guztiz aldatu zen: bere gorputz osoa zuria zen. Baina, zorionez, bere freoek hor jarraitzen zuten. Ilargian bueltaka ari zen, bere amarekin pentsatzen. Ilargiko harri txiki batekin topo egin zuenean, ia erori egin zen. Osabaren oroitzapena etorri zitzaion burura eta oroitzapena burutik kentzeko oinez jarraitu zuen. Dena dela, berriro ere topo egin eta orduan jakin ahal izan zuen ez zuela nahita egin. Bere amak ez zuen Ilargira nahita eraman; berak leku seguru batera eraman nahi zuen alaba, eta azkenean Ilargian amaitu zuen.

Kessak harriak hartu eta hauek botatzen hasi zen bere planetara. Bat bestearen atzetik botatzen zituen. Bere ama konturatzea nahi zuen, berari esker pozik biziko zela Ilargian, bere freoekin.

Guk lurretik izar batzuk bezala ikusten ditugu Kessak bere amari bidaltzen dizkion harriak. Zoritxarrez, ezingo dugu inoiz jakin harri atzean dagoen istorioa.

GARAZI PEREZ AKARREGI • Marrazkia, berarena.

Nor naiz?

Posible da egun batetik bestera jende guztiak zu gorroto izatea? Pentsatzen nuen ezetz, baina bai, posible da. Kaixo, Mikel naiz, baina orain dela gutxi arte ez nekien nor nintzen.

Txikitatik erakutsi zidaten nesken rolak zeintzuk ziren; bai, neska izaten jaio nintzen. Niretzat, betidanik, dantzan egitea, gonak janztea, etab. soilik neskak egiten zituzten kontuak ziren. Baina niri, gauza horiek ez zitzaizkidan gustatzen, nahiago nuen mutilekin futbolean jokatu. Aldiz, ni izaten nintzen eurekin jokatzen zuen neska bakarra. Desberdina. Arraroa.

Urteak aurrera zihoazen, eta gero eta okerrago sentitzen nintzen. Mutilekin jolasean ongi pasatzen nuen, baina «Maddi mari-mutila» izaten nintzen. Neskekin, ordea, ondo tratatzen ninduten arren ni ez nintzen gustora sentitzen.

Etxean, ezin nituen nire arazoak kontatu, nire familiako kideak oso lege zaharrekoak baitziren eta ezin zitzaien buruan sartu neska batek futbolean jokatzea gustoko izatea. Beraz, bakarrik nengoen. Lagunik gabe, familiako kideen laguntzarik gabe. Ni, ni bakarrik, eta neure buruari buruz ezer jakin gabe. Nor nintzen? Nor izan nahi nuen? Zergatik ezin nuen nahi nituen gauzak egin, besteen iritzia kontuan hartu gabe? Galdera horiek ari ziren gau eta egun nire buruan bueltaka.

Orduak pasatu ziren, egunak, asteak eta erabaki bat hartu nuen, nire gurasoei mutil sentitzen nintzela esatea.

Heldu zen eguna, prest nengoen nire gurasoei aurre egiteko.

–Ama, aita, gauza garrantzitsu bat esan behar dizuet –hasi nuen elkarrizketa, urduri.

–Zer behar duzu, laztana? –erantzun zidan aitak.

–Denbora daramat gai honen inguruan pentsatzen, eta uste dut mutila sentitzen naizela –esan nuen dardarka.

NOR NAIZ?

–Nola izango zara mutila?! –esan zidan aitak, haserretuta.– Neska jaio zara eta neska hilko zara!

–Baina….

–Ez baina ez ezer, utzi tontakeriak! –moztu zidan amak, haserre.

Lehenengo malkoak sentitu nituen masailetik jaisten, eta logelarantz abiatu nintzen.

Egun hartatik aurrera hasi zen benetako infernua.

Egun batetik bestera, ez dakit nola, mundu guztiak jakin zuen nire sekretua.

Eskolan, nire irakaslea hurbildu zitzaidan, eta gero eta okerrago ikusten ninduela esatean, nire egoera kontatu nion. Nire amarekin hitz egingo zuela adierazi zidan, dena konpontzeko.

Egun batzuk geroago, nire amarekin topo egin zuen, baina nire amak ez zion kasurik egin eta berdin jarraitu zuen. Dena dela, berriro ere topo egin eta orduan jakin ahal izan zuen ez zuela nahita egin, nire amari, barrutik irten zitzaiola horrela erantzutea eta berak dena emango lukeela niri laguntzeko.

Orain, hainbat ebakuntzaren ondoren, jada Mikel naiz, ez Maddi, eta oso harro nago neure buruaz.

ENEKO ANDREU PERNAS • Marrazkia, berarena.

Gauaren mehatxuak

«Ez dakit zenbat denbora daramadan hemen. Zer egiten dut leku honetan? Non nago? Nire ingurura begiratzen dut, baina horma beltz bat baino ez dut ikusten. Dena ilun dago eta zikinkeriaz beteta. Edalontziak, patata-poltsak, botilak… Orduan erreparatu diot, taberna bat da. Atzo gauean zer gertatu zen pentsatzen saiatzen naiz, baina ez dut oroitzapenik buruan. Pauso batzuk eman eta eguzkiaren distira nabaritu dut. Kalera irten, eta jendea egun arrunt bat izango balitz bezala doa. Momentu horretan gogoratu dut zer gertatu zitzaidan».

Xanet naiz, 13 urte ditut eta Tolosan bizi naiz. Gaztaina koloreko ile kizkurra daukat eta nire begiak goroldioaren antzeko kolorekoak dira. Txikia eta mehea naiz, hori nire konplexuetako bat da. Ez dut kirolik gustoko, ezta lanak egitea ere. Lagun batzuekin batera, jendeari adarra jotzea gustatzen zaigu. Nik ez dut ulertzen nola klasekide batzuk nahiago duten etxeko lanak egiten geratu kalera irten baino.

Dena martxoko egun zoragarri batean hasi zen, inauteriak ziren. Instituturik ez geneukanez, astebururo bezala, goizeko 11:00etan esnatu

nintzen. Ziztu bizian arropak jantzi eta kalera irten nintzen. Jada zain neuzkan lagunak herriko plazan: Iker, Moha eta Egoitz.

–Kaixo, berandu zabiltza. –agurtu ninduen Ikerrek.
–Ezagutzen nauzue –aitortu nuen.

Beti bezala, kaleko ertz batean eseri eta bideo laburrak ikusten aritu ginen. Hori egiten geundenean, gazte batek, gu baino zaharragoak, ostikada bat eman zion Egoitzen mugikorrari: «Plas!!!»

–Zertan zabiltza, burutik ondo al zaude? –haserretu zen Egoitz.
–Txantxa bat baino ez da izan! –barre egin zuen mutikoak.
–Utzi, Egoitz, ez egin kasurik! –lagundu nion.
–Ez diot sinesten, pikutara joan dadila! –amaitu zuen Egoitzek.

Horren ostean, Egoitz lasaitzen zegoen bitartean liskarra izandako mutikoaren taldeko bat gerturatu zen. Dena dela, berriro ere topo egin eta orduan jakin ahal izan zuten ez zuela nahita egin... Ander zen, institututik ezagutzen genuen, eta berak baieztatu zigun. Hala ere, nahiz eta barkamena eskatzera etorri, Egoitzek ez zuen hitz soil bat ere sinestu. Geroago, etxerantz abiatu ginen, 13:00ak aldera.

Gaua heldu zen, 20:30ean gelditu ginen herriko kebab-ean. Ikaragarri gustatzen zitzaidan janari turkiarra. Afaldu eta taberna batera gerturatu ginen. *Lanbroa* deitzen zen eta jai egunetan gazteentzat bideratuta zegoen. Gazte asko zeuden edalontzia eskutan eta ez zirudien Fanta edo Coca-Cola...; kalimotxoa zen. Zigarroa edo baperra zuten batzuek. Ia-ia ezin nuen sinetsi hain gazte horrelako nagusien gauzak egiten ibiltzea. Adin guztietakoak zeuden: 14, 15, 16, 17 edo 18 urtekoak zebiltzan hortik. Bat-batean, mutil batzuk hurbildu zitzaizkigun honela esanez:

–Ejtorgri gglurjekin tjgabernara –esan zuen batek mozkortuta.

–Nik kuriositatea daukat –esan zuen Egoitzek.

–Baita nik ere - aipatu zuen Mohak.

–Zuek joaten bazarete ni ere bai - amore eman zuen Ikerrek.

–Ongi da, zuek nahi duzuena egin, niri berdin zait. Agian maltzurra eta nagia izango naiz, baina tontoa ez naiz 13 urterekin alkohola probatzeko. Zuek jakingo duzue zein bide hartu.

Azkenean, Xaneten lagunek alkohola edan zuten. Batzuetan ez da egin behar denek egiten dutena baizik eta zure izaeraz fidatu behar zara. Horretarako, ausarta izan behar zara, EZ da EZ. Eskerrak bide ona hartu zuen Xanetek, zeren eta istorioaren lehen zatia Ikerri gertatu zitzaion, nagusiarena egiteagatik.

ETS!
ROCK & ROLL
LAU HILABETU

ILAZKI ANDONEGI RODRIGUEZ • Marrazkia, berarena.

Ate maltzurra

Kaixo, nire izena Ilargi da eta nire laguna lepoa ematen hasi zitzaidan. Bai, nire lagunik hoberena. Ez nekien zer demontre gertatzen zitzaion; baina orain, zentzua dauka. Nire laguna, Olatz izenekoa, aspaldi batean, lepoa ematen hasi zen. Eskolan beti bezala egoten zen; baina eskolaz kanpo, ez zen kalera ateratzen, edo nirekin ez, behintzat. Denbora luze batean egon nintzen ea zer arraio gertatzen zitzaion pentsatzen. Pentsamendu haietan murgilduta egoten nintzen. Zergatik egoten zen eskolan nirekin normal eta ez zen nirekin kalera ateratzen? Haserretuta ote zegoen nirekin? Zer egin nuen horrela egoteko? Bihotzerrea nuen. Galdetzen nion bakoitzean, beste zerbaiti buruz hasten zitzaidan hizketan. Zerbait egin behar nuen dena konpontzeko. Egun asko igaro ziren eta arazo berdinarekin jarraitu genuen. Egunero, arratsalde guztietan, 17:00etan basorantz joaten zen.

Egun batean, jarraitu egin nuen, bera konturatu gabe. Baso osoa zeharkatu zuen arbola guztietan bi aldiz jotzen. Zergatik jo ote behar zituen ikusten zituen arbola guztiak? Eta zergatik bi aldiz gainera? Ez

nion zentzurik aurkitzen. Bat-batean, bele bat etorri zitzaidan. Bai, niri. Bai, bele bat. Ikatza bezain beltza zena. Bere mokuarekin jotzen hasi zen nire orkatila. Ostikoa ematen saiatu nintzen, baina ez zen kentzen. Ezinezkoa zen. Odol-putzean nengoen, orduan etxera bueltatu behar izan nintzen.

Hurrengo egunean ere jarraitu egin nion. Eta berriro ere arbola bi aldiz jo zuen, eta ate bezalako bat zabaldu zen. Olatzek, sartu baino arinago, basoa begiradarekin zeharkatu zuen, ea norbait zegoen ikusteko. Zortez ez ninduen ikusi. Eta arbola barruan sartu zen. Izututa gelditu nintzen. Ez daukat hitzik azaltzeko zer sentitzen nuen momentu hartan. Beldurraren eta ilusioaren nahaste bat. Jakin egin behar nuen zer demontre zegoen han barruan. Orduan, ausardia guztiarekin barrura sartu nintzen. Ezin nuen sinetsi zer zegoen barruan. Beleen mundu arraro bat. Izugarrizko handia. Oraindik ere ez dakit zelan sartzen zen hori guztia han barruan. Beldurra ematen zuen. Arraroena, eta segur aski barregarriena, beleak arropa dotoreekin zeudela jantzita, eta denak nire tamainakoak zirela. Uste dut, atetik pasatzean, txikitu egin nintzela; eta irtetzerakoan handitu. Beno, zerua gorria zen. Mordor ematen zuen. Gaztelu bat zegoen apartean. Gaztelu gotiko maltzur bat. Badakit ez zela ideia onena izan, baina bertarantz abiatu nintzen. Bat-batean, sa-

ATE MALTZURRA

rrerara hurbiltzen nengoela, gazteluaren atetik Olatz sartzen zegoela ohartu nintzen. Ez zen zaila izan sartzea. Ez zegoen inor begira, orduan, barrura sartu nintzen. Eta han zegoen Olatz bele-errege maltzurrarekin hizketan. Olatzek zerbait atera zuen poltsikotik, lepokoa ematen zuen, baina ez nengoen ziur. Orduan ondo ikusi nuen eta… Nire lepokoa zen! Bai, nirea! Nire familiak eraman zuen belaunaldiz belau-

naldi! Noiz kendu ote zidan nire lepokoa eta zergaitik zegoen bele bati ematen? Bat-batean, ez dakit zergaitik, baina lepokoa lurrera erori zen eta beleak lepokoa mokoarekin hartu zuenean, ohartu egin zen bertan nengoela. Berandu ohartu zen ni ez nengoela ezkutatuta. Niregana hurbildu zen eta nire familiari buruzko gauza zatarrak esan zizkidan. Olatzek esan zion tratu bat, tratu bat zela. Hitz egiten jarraitu zuten, baina ezin nuen entzun, murgildurik geratu nintzelako pentsatzen ea zein ote zen tratua. Bat-batean, beleak oihukatzen esan zuen: «Eta orain alde egin ezazue hemendik!».

Etxerantz bueltatu ginen nire lepokorik gabe. Olatzek dena argitu zidan. Azaldu zidan, behin, basotik paseatzen zegoela, bele bat hizketan hasi zitzaiola. Lehen aldiz bele batekin hizketan egiten zuela. Beleak esan zion, nire lepokoa bueltatzeko, berez beraiena zela eta bestela hil egingo nindutela. Orduan, Olatzek bi aldiz pentsatu gabe baietz esan zion. Tratua onartu zuen. Horregatik ez zen ateratzen nirekin kalera. Eskolan lepokoa kentzen saiatzen zen ni konturatu gabe. Ez zuen nahi ni hiltzerik. Nire heriotzak asko minduko zuen eta. Dena dela, banekien bere jarrera ezin zela horrelakoa izan, arrazoirik gabe. Arazo hau guztia konpondu nahi nuenez, nire familiarekin joan nintzen beleengana. Denbora nahikoa izan behar zuten konpontzeko. Dena dela, berriro ere topo egin eta orduan jakin ahal izan zuten ez zuela nahita egin.